

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Antonio Sagarna Ortuondo Kariño

*Dima, Bizkaia
(1922-2015)*

Aurkibidea



Biografia



Dimako Artaun auzoko Etxagoikoa baserrian jaio zen eta gerora auzo bereko Iguntzagoikoara joan zen. Gurasoak ere dimoztarrak zituen, aita Artaungoa eta ama Bargundikoa. Sei neba-arrebatatik laugarrena da Antonio. Umea zela, aitak ardiak ekarri zituen etxera eta anaia zaharra hasi zen berauek jagoten. Laster ekin zion Antoniok ere lanbidea ikasteari eta, ondoren, bizimodu guztia eman dio pastoretzari. Han eta hemen eduki izan ditu ardiak barrutiak jaten: Morgan, Larrabetzun, Etxanon... Gaztaiak, osterak, Galdakaon saltzen zituen. Artzain ibilitako garaiez gain, gerrako kontuez ere luze egin genuen berba beraragaz egon ginenean, bertso eta kontu zaharrak ahaztu barik. [Jose Gorospe](#) koinatuagaz batera egin genion elkarriketa.

Zintak

DIM-003

- **Proiektua:** Dimako kontuek eta kantuek
- **Elkarrizketatzailea(k):** Dimako bertso eskola
- **Data:** 2010-11-20
- **Iraupena:** 59 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Emalea:** Dimako bertso eskola

DIM-015

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxazarra, Ainhua
- **Data:** 2014-07-02
- **Iraupena:** 80 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Agirrebeña, Aintzane

DIM-016

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxazarra, Ainhua
- **Data:** 2014-07-02

- **Iraupena:** 50 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

Pasarteak

1. Ijitoek gazta erdia kendu zioteneko pasadizoa

- **Erref:** DIM-015/005
- **Iraupena:** 0:02:44. **Hasi:** 00:07:10. **Bukatu:** 00:09:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Kanpoko jendearekin harremana
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

‘Kariño’ gaztak saltzera joaten zen motoan. Behin ijito talde handi baten ondotik pasa zen eta emakume batek gelditzeko esan zion. Ume mordoa inguratu zitzaizkion moto ingurura. Bertan bizitakoak.

2. ‘Kariño’ gaitzizena dela-eta bizi izandako pasadizoa

- **Erref:** DIM-015/007
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:10:10. **Bukatu:** 00:12:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Gaitzizenak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » LGTBQ+

Laburpena:

<p>‘Kariño’ gaitzizena dela-eta bizi izan zuen pasadizoa. Bera eta ‘Tremendo’, biak artzainak, Galdakaora joaten ziren gaztak saltzera. Autobusaren zain zeudela, ‘Kariño’ esanda agurtu zuen ‘Tremendo’k eta jende guztia eurei begira geratu zen.</p>

3. Galdakaora motoan, gaztak eta esnea saltzera

- **Erref:** DIM-015/009
- **Iraupena:** 0:01:21. **Hasi:** 00:12:37. **Bukatu:** 00:13:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

Laburpena:

‘Kariño’ Galdakaora joaten zen egunero gaztak eta esnea saltzera. Galdakao osoa pasatzen zuen bere motoarekin. Nondik nora ibiltzen zen.

4. Umetako bizimodua; auzoko eskola bere sasoian egindakoa

- **Erref:** DIM-015/010
- **Iraupena:** 0:02:11. **Hasi:** 00:13:58. **Bukatu:** 00:16:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:

Umetako bizimodua. 14 urtera arte ez zela irten Artaun auzotik dio `Kariño´k. Auzoko eskolan ibili zen, Asuncion izeneko maistrarekin. Eskola egiten ere ezagutu ei zuen.

5. Maisuak zigortu zueneko pasadizoa

- **Erref:** DIM-015/011
- **Iraupena:** 0:01:26. **Hasi:** 00:16:09. **Bukatu:** 00:17:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Artaun auzoko ermitan maisu batek eskolak ematen zituen. Eskola umeen janzkera. Maisuak `Kariño´ zigortu zueneko pasadizoa.

6. Bilbora lehenengo aldiz joan zenekoa

- **Erref:** DIM-015/014
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:18:28. **Bukatu:** 00:20:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Beste garraio batzuk
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:

21 urterekin soldadu joan zen `Kariño´. Ordura arte birritan zegoen Bilbora joanda. Lehenengoz 15-16 urterekin hango biltegi batera baba eroatera. Igorreraino oinez eta handik tranbian.

7. Soldadutzarako zozketa Bilbon; Afrikara tokatu

- **Erref:** DIM-015/019
- **Iraupena:** 0:01:41. **Hasi:** 00:25:47. **Bukatu:** 00:27:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza

Laburpena:

<p>21 urterekin joan zen `Kariño´ Bilbora bigarrenenez, soldadutzarako zozketara. Bozgorailuetatik esaten zuten nor nora joan behar zen. Berari Afrikara tokatu zitzaion eta ordura arte itsasoa hurbiletik ikusi barik zegoen. Algecirasera lehenengo eta handik Marokora. Han ikasi zuen gaztelania apur bat. Eskolarik ere ez zuela dio, gerra sasoian eskolak kendu egin zituztelako.</p>

8. Gerratean ibili ez arren, bonbardaketak ikusi zituen

- **Erref:** DIM-015/020
- **Iraupena:** 0:01:11. **Hasi:** 00:27:28. **Bukatu:** 00:28:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

<p>`Kariño´k Gernikako bonbardaketa ikusi egin zuen anaiarekin mendi puntan zegoela. Beste bonbardaketa batzuk ere ikusi zituzten. Berari ez zitzaion tokatu joatea, gaztea zelako artean, baina bera baino bi urte nagusiagoak eraman zituzten soldadu.</p>

9. Soldaduei laguntzera Mugarrara

- **Erref:** DIM-015/021
- **Iraupena:** 0:03:39. **Hasi:** 00:28:39. **Bukatu:** 00:32:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Gerratean fronteak non egon ziren. Milizianoak herrian. Agindu bat etorri zen esanez umeak eta andreak kenduta, beste guztiak ebakutzea komeni zela. Soldadu batzuk etorri zitzaizkien pistolarekin eta Mugarrara laguntzeko esan zien, euren lagunei jatekoa eramatera. Gaua han pasa behar izan zuen eta hurrengo egunean laga zioten etxera itzultzen. Kapitainak txokolatea eman zion.

10. Soldaduei laguntzetik etxera itzuli eta inor ez

- **Erref:** DIM-015/022
- **Iraupena:** 0:01:39. **Hasi:** 00:32:18. **Bukatu:** 00:33:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » lhes egin beharra

Laburpena:

Gerratean, 14 urte zituela, soldadu batzuei Mugarrara lagundu behar izan zien. Etxera itzuli zenean, denak alde eginda zeuden. Bazekien anaia artaldearekin Aramotzera joatekoa zela eta harantz joan zen. Anaia aurkitu zuenean, pozik!

11. Gerratean herri batetik bestera artaldearekin

- **Erref:** DIM-015/023
- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 00:33:57. **Bukatu:** 00:36:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » lhes egin beharra

Laburpena:

`Kariño´, anaiarekin batera, herri batetik bestera ibili zen gerratean artaldearekin. Nondik nora ibili ziren. Josek gizon bat ezagutu zuen eta hizketan hasita `Kariño´ren ezaguna zela jakin zuen. Hark kontatu zizkion kontuak.

12. Artetan nazionalekin topo; hildako soldadua

- **Erref:** DIM-015/024
- **Iraupena:** 0:03:32. **Hasi:** 00:36:37. **Bukatu:** 00:40:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Gerratean hara eta hona ibili ostean Artetako San Antontxura iritsi ziren `Kariño´ eta anaia. Han soldadu nazionalekin topo egin zuten. Ogiaren inguruko pasadizoa. Hildako soldadu bat zegoen inguruan. Nazionalak dena kendu zioten, baita gorrien dirua ere, eta gero ostikoz jo eta iraindu. `Kariño´k dio gerra ezagutu zuela gerrara joan barik.

13. Gerrateko bizipenak; Bilbo hartu zuteneko kontuak

- **Erref:** DIM-015/025
- **Iraupena:** 0:01:46. **Hasi:** 00:40:09. **Bukatu:** 00:41:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

<p>`Kariño´ren anaia soldadu ibili zen gerratean. "Cinturón de hierro". Nazionalak itsasotik sartu ziren. Bilbo hartu zuteneko kontuak. Zaratamotik fusilen tiroen argitasuna ikusten zuten iluntzean. </p>

14. Lemoatxen borroka gogorra

- **Erref:** DIM-015/027
- **Iraupena:** 0:02:55. **Hasi:** 00:43:33. **Bukatu:** 00:46:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Lemoatzen borroka gogorak bizi izan ziren gerratean. Jose han ibili zen beharrean gerora eta gerrateko bonba-zuloak zeuden bezala mantentzeko agindu zioten. Dena zuloz beteta geratu zen. Jende asko hil zen bertan.

15. Gorrien kamioiak Diman; bonbardaketak

- **Erref:** DIM-015/031
- **Iraupena:** 0:02:38. **Hasi:** 00:47:40. **Bukatu:** 00:50:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

<p>`Kariño´astoarekin errotara zihoala, Dimako plazan kamioi txiki pila bat ikusi zituen pasatzen. Gorriak zihoazen bertan, aizkora, pikatxoi eta eskopetekin. Gerra luze joan zen eta pixkanaka gorriak arma gabe geratzen joan zirela dio. Lehenengo bonbardaketa Otxandion. Gero Durango, Elgeta, Gernika... Berak dena ikusi zuen.</p>

16. Marmiten bristada ikusita, bonba bota ziotenekoa

- **Erref:** DIM-015/032
- **Iraupena:** 0:01:34. **Hasi:** 00:50:18. **Bukatu:** 00:51:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Zaratamon ebakuatuta zeudela `Kariño´ri gertatutakoa. Ardi-esnea batzeko, marmitak ekarri behar izan zituen iluntzean etxetik txabolara. Marmiten bristada ikusita, hegazkinak hurbildu zitzaizkion eta bonba bat ere bota zioten. Zortea izan zuen.

17. Hiru soldadu Artaun auzoan lurperatuta

- **Erref:** DIM-015/034
- **Iraupena:** 0:02:32. **Hasi:** 00:52:05. **Bukatu:** 00:54:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak

Laburpena:

<p>Artaun auzoan hiru soldadu ei daude lurperatuta. `Kariño´k dio batek bere buruari eman ziola tiroa. Josek hezurak ikusi zituela kontatzen du. Soldaduetako bat Bilbokoa ei zen. Dokumentazioan kalearen izena jartzen zuen, baina orduan inor ez zen joaten senideen bila, beldurragatik.</p>

18. `Cara al sol´ abestu eta eskua jaso behar

- **Erref:** DIM-015/035
- **Iraupena:** 0:01:34. **Hasi:** 00:54:37. **Bukatu:** 00:56:11

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Politika eta Franco

Laburpena:

Gerraostean eskolan `Cara al sol´ abestu behar izaten zuten. Kolean pasatzen zen jendeak ere eskua jaso behar izaten zuen, baita iturrira arropak garbitzera zihoazen andreak ere. Joseren aitari kargu hartu zioten eskua ez zuelako jaso.

19. Elgetatik oinez etorri ziren soldaduak

- **Erref:** DIM-015/037
- **Iraupena:** 0:00:55. **Hasi:** 00:56:25. **Bukatu:** 00:57:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

`Kariño´ren anaia, Patrizio, gerran ibili zen. Lehenengo Gorbeian eta gero Elgetan. Elgetatik oinez etorri zitzaizkien soldadu batzuk euren etxera. Zerbait jan zuten, baina triste ei zeuden, berba egiteko adorerik barik.

20. Soldaduekin larri, txakurrak Euskadi izena zuelako

- **Erref:** DIM-015/038
- **Iraupena:** 0:01:41. **Hasi:** 00:57:20. **Bukatu:** 00:59:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

<p>Igorren eta Lemoan zubiak bota egin zituzten gerratean. Ardiekin Artetatik behera jaitsi zirenean, Erletxetan artilleriako soldaduak zeuden. Euren txakurrak Euskadi zuen izena eta estutasuna pasa zuten hango soldaduekin. Berehala aldatu zioten izena txakurrari.</p>

21. Lorentzo Gorospe zauritu zutenekoa

- **Erref:** DIM-015/039
- **Iraupena:** 0:01:54. **Hasi:** 00:59:01. **Bukatu:** 01:00:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak

Laburpena:

<p>Gerrateko bizipenak. Igorreko Lorentzo Gorospe zauritu zuteneko kontuak. Zorte handia izan zuen.`Kariño´ren anaiarekin batera zebilen gerratean.</p>

22. Gerratik itzulera; etxea hutsik

- **Erref:** DIM-015/041
- **Iraupena:** 0:01:11. **Hasi:** 01:01:38. **Bukatu:** 01:02:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera

Laburpena:

Gerratean etxera itzuli zirenean, hutsik aurkitu zuten. Ohea Lemoatik ekarri zuen aita, lepoan hartuta. Etxean laga zuten ahuntza Lemoara eraman zuten eta ordaindu egin behar izan zuten berriz etxeratzeko.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-01-31

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com